*elearazi*ri berba eragiten

Karlos del Olmo

Hiru urte bete ostean, 2015eko martxoaren 11rekin batera, agur esan zuen Elearazi atariak. Hirurteko horretan, 264 idazki digital ekarri zituzten plaza elektronikora Garazi Arrula Ruizek eta Danele Sarriugarte Mochalesek. Biok-biotara, 80 egile baino gehiago jarri zizkiguten eskura eta begira; erdiak, fikziozko testuak, enparauak, ez-fikziozkoak. Genero edo sail guztiak lantzeko saio eskerga, eskergarik bada: antzerkia, artikuluak, autobiografia, gazte literatura, hitzaldiak, hitzaurreak, ipuina, manifestua, nobela (txatalak), prentsa, poesia, saiakera (atalak)… Ez zen falta ikus-entzunezkorik ere Elearazin: 29 bideo, abesti eta bestelakoak azpitituluz horniturik zintzilikatu zituzten. Idazle, ikertzaile, itzultzaile eta pentsalariei ere eman zieten hizpidea: guztira, 31 elkarrizketa mamitsu, ez astun. Honako honetan, haiek dute berbabidea, beraiek direlako elekideak.

Karlos del Olmo: Zergatik jo zenuten, duela hiru urte, zeuen burua artaldean ibiltzea maite ez zuten ardi galdutzat? Bloga ezagutu nuenean, deigarria egin zitzaidan metafora, eta, orain ere, atzera begira, galdera piztu dit.

Garazi Arrula: Hori idatzi genuen, bai, baina jarraian esaten genuen horrek ez gintuela berezi egiten; ardi galduen parte izatea ez da deus berezia. Eta zergatik jo genuen bloga sortzera? Bukatu berria genuen karrera, baina halako gazi-gozo bat utzi zigun. Bagenuen oinarri bat, ustez, baina gehiago ziren hutsuneak eta erantzunik gabeko galderak. Beharbada horregatik. Nondik jo jakin ez, esperientzia ere gutxi… Orain jada zehaztu dugu norabidea, edo behintzat beste batzuk baztertu ditugu.

Danele Sarriugarte: Zer genuen buruan duela hiru urte hori idazterakoan… auskalo. Frustrazio pixka batekin bukatzen duzu karrera, eta ikasitako horretatik zerbait atera nahian, zerbait sortu nahian, bazoaz: "Goazen zerbaiti ekitera, eta ikusiko dugu noraino iristen garen, edo zer bide hartzen duen". Ardi galduena, beharbada, noraez

horretatik irakur zitekeen. Edo, baita ere, karrerako beste jendearekiko harremanagatik. Batzuek oso garbi zeukaten profesionalki zer egingo zuten itzulpengintzarekin, edo jo zuten irteera profesional oso zehatzak zituzten masterrak-eta egitera, edo irakaskuntzara joan ziren… Ni neu ez, nik ez nekien zer egiten bukatuko nuen.

Karlos: Eta, orain, atzera begiratuta, hala sentitzen zarete oraindik ala artalderen bat topatu duzue? Edo, besterik gabe, bloga uztea erabaki duzue? Balio izan dizue beste identifikazio mota batzuk topatzeko, ez?

Garazi: Bai, gauza askotarako. Esperimentaziorako eta bilaketarako, lehenik. Leiho bat ere izan da geure lana ezagutarazteko, nahiz eta kontzienteki ez genuen helburu horrekin sortu. Ez zen asmo didaktikorik ere, baina esperientzia bildu dugu, eta balio izan digu ekiteko eta egiteko.

Danele: Bai, bai. Ez dakit gutako bakoitzak bere artaldea topatu duen, baina uste dut bakoitzak txoko bat behintzat izan duela.

Nik ez neukan espektatibarik hasi nintzenean, eta, orain, gertatu den guztia eta eman didan guztia ikusita… Oso ongi etorria eta estimatua izan da dena.

Ni beranduago hasi nintzen itzultzen profesionalki, baina egiten nituen itzulpenak lehenago ere. Alderdi didaktiko hori ez da izan bakarrik praktikagatik eta gerora ez galtzeko freskotasun hori, baizik eta beste pertsona bat duzulako ondoan zureak begiratzeko, eta behartzen zaituelako diziplina bat mantentzera. Lankide onak izan gara alde horretatik; biok mantendu dugu konpromisoa lanarekin, eta horrek asko motibatzen zaitu jarraitzera.

Ez nintzen bereziki taldean lan egin zale, baina ikusten duzunean bat zatozela lan egiteko moduan, edo behitzat zorroztasun irizpide batzuetan, oso aberasgarria da.

Karlos: Erantzunen aldetik-eta, harreraren aldetik, zer bilakabide topatu duzue? Nolakoa izan da *feedback*a?

Garazi: Atzera begiratuta, baliteke kexati ibili izana: ez genuela erantzunik jasotzen, iruzkinik apenas uzten zutela, ez zela eztabaidarik pizten… Hasierako helburuen artean bazen itzulpen komunitate bat sortzeko asmoa. Bigarren urteurrenean, deialdi berezi bat egin genuen, ea jendea hurbiltzen zen, eta bai, etorri ziren batzuk; azken urtean, beraz, izan dugu kolaborazio zenbait. Horietaz aparte, komunitate bat sortzeko asmoa ez genuen bete, iruzkinak urriak ziren, eta geure buruari galdetzen genion zergatik ote zen. Baina, noski, neuk ere ikusten nuen: "Zenbat blogetan uzten dut nik erantzuna?".

Ezin da espero gauetik goizera jende multzo batek bere sentituko duenik zeuk sortu eta diseinatutako zerbait, are gehiago, zeure mailan inplikatuko denik; pena da, batez ere desengainu pittin bat sortzen duelako ezintasun nahitaezko horrek, eztabaida gehixeago espero duzulako, hainbesteko ahaleginen ondoren. Beharbada *31eskutik* blogean ikusi dut guri falta izan zaigun eztabaida; ez dago alderik, ordea, abiapuntua eta funtzionamendua bera komunitarioagoa izan baita *31eskutik*en hasiera-hasieratik.

Nolanahi ere, egia da esan izan digutela "nolako lana egiten duzuen, zein ongi, ira-

kurri nuen hau…". Orain begiratuta, hala ere, erantzunarekin kontent egoteko arrazoiak badira.

Danele: Bai, pena genuen, baina ez bakarrik egindako lanagatik, baizik eta testu askok ematen zutelako eztabaidarako bidea. Piztu izan balitz, hala ere, lan gehiago eskatuko zuen, hori ere bai. Iruzkinak taxuz egiteko, denbora behar da…

Igarri dut, hala ere, gradualki asko igo dela blogaren ezagutza, eta harrera ona izan du beti; nik, behintzat, hitz onak jaso ditut beti. Eta esker ona ere bai, kronikengatik edo autore berriak deskubritu izanagatik… Hori erantzuntzat har daiteke, nik uste.

Garazi: Guk egin dugun ekoizpena asterokoa izan da, hori da erritmoa, eta beharbada guri iruditzen zitzaigun gai bat presazkoa zela, eta itxitzat ematen genuen, baina gerta zitekeen erantzunak geroago etortzea, tempoa ez baita bera irakurleentzat, edo baliteke testua zerbaitetarako erabiltzea. Ezin jakin zer bide izanen duen.

Danele: Gertatu izan da guk gaia itxita, bueltatu direla dena delakoagatik autore batengana, eta bai, erabili izan dituzte gauza batzuk. Orduan, neurtzen zaila den arren, nik uste dut oso harrera ona izan duela blogak; erabilia eta irakurria izan dela.

Karlos: Paperera, zer ekarri behar duzue azkenean?

Garazi: Oraindik ez dugu guztiz zehaztu, egia esan. Asmoak kontatzen ahal dizkizugu: udazken bukaeran atera nahi dugu, eta badugu buruan, gutxi gorabehera, zer jasoko dugun. Mami gehien duten atalak bilduko ditugu, ez guztiak. Sarean ez galtzeko modu bat da, baina baita beste bitarteko bat ere; batzuk ez dira ongi moldatzen blog eta gisakoekin, eta ez dute zertan. Horiei ere eskaini nahi diegu egindakoaren lagin bat. Eta erabaki aurretik ere baten batek galdetu zigun paperera eramanen ote genuen. Gainera, oso ekologikoa ez izan arren, maite dugu papera: zikintzen da, usaintzen du, ukigarria da…

Danele: Niri ilusioa egiten dit. Garazik esan duenaz gain, Estatu Batuetan-eta, adibidez, aldizkari digital askok egiten dute urtean behin urtekari moduko bat, eta polita iruditzen zitzaidan halako zerbait edukitzea itxieran, amaituta. Oraindik, hor da bloga, baina, urtebete barru, gutako bakoitza beste kontu batzuetan sartuta ibiliko da, eta hor geratuko da hori.

Bloga jarraitu duenari ere ilusioa egingo diola iruditzen zait.

Karlos: Argitaletxeren batekin erdi berbatuta zenutelakoan nengoen…

Garazi: Ez, ez. Auto-edizioa izanen da.

Danele: Bai, eta, gainera, nahi dugunean atera nahi dugu. Argitaletxe batek beste erritmo bat dauka, beste gauza batzuk markatzen dizkizu…

Karlos: "Itzulpenak du gu biok elkartzearen errua, eta haren bekatuen ondorio da, baita ere, blog hau". Lehen ardiena, orain errua eta bekatua… Irudi esanguratsuak dira, kanpotik irakurrita behintzat.

Garazi: Irudi errazak dira, agian, egokiak aurkezpen testu baterako…

Itzulpena izan da ardatz, eta horren inguruan gorpuztu da guztia; alegia, gogoetetan itzulpena izan da zuzenean nahiz zeharka hizpide, eta ekarri ditugu testuak feminismoari buruz, politikari buruz, arteari buruz… Hainbat, baina beti itzulpenaren bidez. Testu itzuliak dira.

Danele: Bai, nik ere hala ikusten dut. Egin ditugun elkarrizketa guztiak itzulpenari lotuta egon dira. Itzultzaileak ez baziren, beren obra itzulia duten autoreak, edo antologia bat apailatu dutenak, edo dena delakoa. Argi dago guk itzulpengintzaren bidez ezagutu genuela elkar…

Karlos: Bai, eta ikusten da berehala hasi zinetela itzulpenaz harago joaten. Asmo literario bat ere ikusten da, ez?

Garazi: Bai, baina nik uste dut adar askotatik heldu diogula itzulpengintzari, ez literariotik bakarrik.

Danele: Egin diogu elkarrizketaren bat beste alorren batean dabilen itzultzaileren bati, ikusgarritasuna emate aldera, baina bloga hobby moduko bat izan da, eta orduan…

Garazi: Saiatu gara interpretazioan, ikusentzunezkoetan edo zuzenketan dabiltzanekin, baina egia da gure zaletasuna sormena dela, eta hortik jo dugu. Aldiz, ekarri ditugun testuetatik erdia ez-fikzioa dira, eta prentsa-artikuluak ere badira.

Danele: Eta, gainera, asteko *post* bat idatziz erritmoa mantentzeko, jakina, zure bizitzan sartzen da. Hurbilagotik begiratzen badiot, ikusten dut nire irakurketen eboluzio bat, kasik. Idatzi ditudan *post* guztiak arretaz irakurriko banitu, ikusiko nuke zertan nenbilen orduan. Ezinbestean; ez baikaude konpartimentu estankoetan. Eta uste dut bat datorrela edo etor daitekeela guk itzulpengintzari buruz daukagun ikuspegiarekin.

Hasieran, itzulpengintzari buruzko hausnarketak egiten hasi ginen, baina gero gehiago sartu ginen itzulpengintzak berak ematen zizkigun tresnekin. Elkarrizketetan, ez. Hor, ardatzari eutsi diogu; baina ez guzti-guztietan… Kronikak ere egin ditugu, itzulpengintzari buruzko hitzaldi eta ikastaroenak, eta horiek… Bai, hori da, gure bizitzari oso lotuta egon da.

Karlos: Bai, hori gertatzen da blogetan… Hala ere, azkenean, zeuen liburutegi moduko bat eratu duzue, ez? Gaur egungo literatur kritikan asko hitz egiten da horretaz: egile batek zer irakurtzen duen; kasu honetan, itzultzaile batek. Eta zuek nabarmendu nahi izan dituzue zuen zaletasunetako batzuk.

Garazi: Nahitaez gertatzen da hori, inorekin ez duzu betebeharrik, eta zerk deitzen dizun ozenen edo gozagarrien, horri egiten diozu kasu. Saiatzen ginen hala ere beste eremuetara zabaltzen, eta hitz egin izan dugu horretaz: "Zergatik ez dugu arteari buruz zerbait egiten?" Beste publiko batengana iristeko, nolabait, eta beste publiko bat itzulpengintzara erakartzeko. Zeren hori ere itzulpena da, beste eremuak konkistatzea. Pentsatu izan dugu, bai, baina Danelek esan duen bezala, gure aisialdia izan da, eta gehien erakartzen gintuena hautatzen genuen. Edo "honek euskaraz egon behar du" pentsarazten zigun hori, edo zerbait gertatu eta erantzun bat behar zuela.

Danele: Nik uste dut halako gauza *friki* batzuk ere badirela. Esan nahi dut…

Karlos: Nahita?

Danele: Beno, ez dakit… Bai… Liburutegiarena aipatu duzula, uste dut izan dela hautu kontziente bat liburutegi hori izan zedin, nolabait, ez-ohikoa. Nik, behintzat, behartu dut neure burua beste gauza batzuk bilatzera. Adibidez, ikusi dugula azkeneko hainbat autore izan direla txuriak… Klaro, hor badituzu muga batzuk: nik ingelesez idazten zuten beltzak bakarrik aukeratzen nituen, ze ez dakit frantsesez. Orduan, bai, izan da hor zabaltzeko ahalegin bat, baina, beste alde batetik, garai horretan genituen kezkekin lotutako gaiak ere baziren.

Karlos: "Erdi lotsagabe erdi itsu ekin genion, ur handitan sartzen ari ote ginen erreparatu gabe"… Azkenean, handiegiak izan dira urak?

Danele: Ni oso pozik geratu naiz emaitzarekin, eta uste dut oso lan txukuna egin dugula. Ur handiak… ez dakit. Orain hasiko banintz errepasatzen hasieran kaleratu nituen itzulpenak, igual ikusiko nuke ur handiak zirela niretzako garai hartan, baina pozten naiz nire inkontzientziagatik… Igerilekura gehiegi pentsatu gabe jauzi egiten dutenetakoa naiz, eta pozten naiz, ze, bestela, orain ez nintzateke egongo askoz egoera hobean. Orduan, ur handiak… beti dira. Mundua zabala eta arrotza da, Sarriren poeman esaten den bezala, eta nahi duzu amaren altzoan egon beti, baina ezin da…

Garazi: Esaten den moduan, gogoko lekuan aldaparik ez. Edo, aldapa bada, baina lautu egiten da. Gustura ari bazara lanean, eta lankideekin harreman ona baldin baduzu, hagitzez errazagoa da. Beti iruditu zait oso funtzionala dela bloga; epeak genituen, eta hori izan da muga bakarra. Geure buruari agintzen genion astero zerbait kaleratzea, eta, batzuetan, konturatzen zinen kaleratutako hori ez zihoala joan behar zuen bezala, kalitatearen aldetik. Saiatzen ginen kalitatearena izan zedin irizpide nagusia, baina, noski, ezin genion eskaini behar adina denbora. Bi astetan hamar poema badituzu aisialdian euskaratzeko, ezin autorearen biografia liburuak irakurtzen hasi. Badakigu zenbat lan egin behar den taxuz egiteko, eta beti joaten ziren beldur pixka batekin, baina jakinda helburu funtzional bati erantzuten ziola: ez zegoelako autore hori edo lehen aipatutako beste motibazioengatik. Ez berez publikatzeko moduan zegoelako. Hamaika buelta gehiago eman behar ziren, nahiz eta hamaika buelta emanak genizkion.

*Armiarma*n jartzen hasi zirenean, niri apuru pixka bat ematen zidan. Oso ongi, zabaltzen ari da, baina testu horiek errepaso bat behar dute. Paperezkoa egiten dugunean, zuzenketa beharko dute, noski. Hori izan da arantzatxoa, edo aipatu uretan sakonena.

Danele: *Armiarma*koa begiratuta, garai batean aldizkarietan-eta zer egiten zuten, ikusi dut nola ateratzen ziren itzulpenak. Eta, garai hartan Internetik gabe; hau da, guk gauza asko lau kliketan egiaztatzea dugu, baina haiek ez. Alde horretatik, oso pragmatikoki begiratuta kontuari, garbi dago blog bati egindako post batean Nicanor Parraren hamaika poema ateratzea ez dela Parraren edi-

zio bat euskaraz, baina bada lagin bat, eta, alde horretatik, funtzionaltasunaz gain, uste dut oso errealista izaten ari ginela, eta igual horregatik ez didate eman ur handi horiek hainbesteko inpresiorik. Lagin hori ikusita liburu oso bat itzultzea eskatuko balidate, horrek erreparo gehiago emango lidake.

Karlos: Orduan, ur handiena itzulpenaren aldetik aipatzen duzue? Edo kritikaren edo teorizazioaren aldetik. Edo alderdi guztietatik?

Garazi: Oro har, ezta? Gauzak publikoki egiten ari zara. Gauza bat da zeure etxean itzulpenak egitea, intuizioak buruan borborka izatea, ondokoari matraka eman beste asmorik gabe –beti baitago asmoren bat–, eta beste gauza bat da astero-astero zerbait kaleratzea. Neuri publiko egitearenak ematen dit erreparoa.

Danele: Bai, eta gainera begi-bistan jartzen zara, ezta? Egia da hasieratik honaino askoz publikoago bilakatu garela, eta beste modu batean hartu dudala. Duela hiru urte edo orain, ez nuen berdin ikusten. Orain kontzienteagoa naiz. Ez nuen pentsatuko orain gauden bezala egongo ginenik.

Garazi: Bai, hala da. Hasieran publiko egiten genuelako, eta orain, beharbada, gehiago konturatzen zarelako zure ahuldadeez edo aurretik lanen bat egina duzulako. Eta pentsatuta ere "honek ezin du horrela joan" erabakitzen duzu aurrera egitea.

Karlos: Neurri batean kritikari ere izan zaretelako, zeuen burua ere kritikatua izateko arriskuaren aurrean sentitu zarete?

Danele: Nik uste dut itzulpengintzaren munduko jendeak oso-oso ondo hartu duela alde horretatik; hasieratik sustatu dute pila bat, eta helarazi digute berotasun bat, nolabait esateko. Hor, itzultzaile arituak direnek ondo ulertu dute zer zen, eta ez dute hartu lupa batekin. Etorri dira komentarioak, testuari edo egileari buruz, baina sekula ez itzulpenari buruz. Gainera, ipuinetako batzuk erabili dira —Ana Moralesek, adibidez, Xerezaderako erabili ditu— edo zabaldu dira zertxobait gehiago.

Kritikatua izatea izango zen hasierako beldurretako bat, baina gero, zeure burua kokatu ahala, inguruarekiko eta zeure buruarekiko, kritika hori ez duzu hartuko eraso bezala, kritika bezala baizik. Kritika, eraikitzailea baldin bada…

Karlos: Zergatik desagertu da *elearazi*, benetan?

Garazi: Hasieran, bitarteko hori balekoa egiten zitzaigun, baina orain beste proiektu batzuei eskaini nahi diegu denbora hori, edo beste gogo batzuei, eta, gainera, lehen aipatu ditugun kalitateari eta erritmoari eusteko, ikusten genuen hemendik hilabete batzuetara itoago ibiliko ginela.

Nolanahi ere, agur idatzian genioen ez ginela bizirauteko sortu. Ez ditugu gauzak erdipurdi egin nahi. Hori argi geneukan, eta estu eta larri ibili baino, hobe da ongi amaitzea. Jakin egin behar da bukatzen; askotan, ez baitakigu. Horretan ere ikasten ahal da.

Danele: Oso naturala izan da. Kontua da guk aipatuta geneukala behin baino gehiagotan… Blogari buruzko hausnarketa-prozesuak ez ditugu egin bi hilean behin,

baizik eta ziklo naturalak amaitzen zirenean, gutxi gorabehera (uda amaieran, edo urtea egin duenean edo), eta buruan genuen amai zitekeela, nahiko azkar, generaman martxarengatik. Egin genuen bilera, ea zer egin hirugarren urtearen ondoren, eta ikusi genuen aproposa zela bukatzea. Eta gehiago esango dut: uste dut azken hilabeteetako erritmoari eutsi diogula bagenekielako bukatzen zela.

Garazi: Kontzienteki, bukatzen zela bagenekielako, urtarrilean eta otsailean astero bi *post* jarri ditugu, batzuetan hiru, eta martxoko 11 egunetan egunero jarri dugu zerbait. Jarri gabe utzi nahi ez genituenak ekartzeko modua ere izan da.

Danele: Bai, blogak ematen zizkigun baliabide batzuk, baina mugatuak ziren, eta hiru urteotan gauzak asko aldatu dira geure bizitzetan ere. Nik orain, adibidez, irakurriko ditut gauza batzuk eta ez dut izango *elearazi*ren aitzakia horri buruz idazteko; beste toki batean ipini beharko dut… Baina bai, guk oso natural bizi izan dugu. Ahituta zegoen, txiki geratuta bezala…

Karlos: Ba, hori da nik sakondu nahi nuena. Zergatik geratu da txikiegi plaza hori? Blogak berak balio ez dizuelako, edo proiektu luzeagoak dituzuelako edo…

Garazi: Azken batean, dauzkagun mugak dauzkagulako, eta denbora beste gauza batzuei eskaini nahi genielako. Horrela jarraitzen ahal genuen, baina ez genuen okerrera egin nahi, eta beste plaza batzuetan nahi genuen eragin.

Danele: Itzulpenak, adibidez, makina bat daude egiteko, baina ez genuen nahi alternatiba gisa jarraitu ere. Biok proiektu berean jarraitzekotan, izan beharko zen webgune bat askoz anbiziotsuagoa, diru-laguntzak eskatuta, eta hori ez dugu sekula planteatu. Blogaren lau atalak jorratu ditugu, eman ahal zutena eman dute, eta orain beste toki batzuetan bilatzen jarraitzeko ordua da.

Karlos: Eta ez duzue pentsatu modu profesionalagoan egitea, edo lanbide izatea…

Danele: Planteatu izan digute, baina badakit bi pauso zeudela: edo bukatzea, edo *"think big"* egitea. Eta hori ez da inoiz asmoa izan.

Garazi: Ez, ez dugu sekula halakorik pentsatu. Eta galdetu izan didatenean, oso garbi ateratzen zitzaidan ezetz. Hori izan da politena, gainera. Geure buruari jartzen genizkion mugak besterik ez genuen, "muga" komatxo artean jarrita beti. Ez genuen kuota bat bete behar, ez gustua eman beharrik inori; nahi genuena jartzen genuen nahi genuen bezala… Bion artean ere, ez da arazorik izan, oso osasuntsu jardun dugu.

Karlos: Ahalegin zabal bat egin duzue, ezta? Testu asko, egileak ere beste hainbeste, fikziozkoak eta ez-fikziozkoak… Nik behintzat, kanpotik, igarri dut gauza askori heltzeko asmo bat, eta genero guztiak lantzeko ahalegin hori; horregatik egiten nizuen galdera. Nahita bilatutakoa da hori? Horren atzean, zer dago? Inork ez pentsatzea hutsuneak direla, nahita uzten zenituztelako, edo bestela, mundu osoa hartu nahian?

Danele: Hain zuzen ere, guk kritikatu izan dugu ez direla kontuan hartzen genero batzuk, eta badakigu badirela mugak. Guri,

geure apetagatik ari ginenez, ez geneukanez ezer saldu beharrik, plaza egokia zela iruditzen zitzaigun. Irakurketa batzuk ez dira agertzen, ze oso eskuragarriak dira, baina beste batzuek ez dute tokirik, eta plaza aproposa zen *elearazi*. Eta, hala ere, ez dugu izan nahi beste aniztasun.

Garazi: Gogora etorri zait Kubako autore haiek publikatu genituenekoa. Lagun batzuek Habanako azoka batetik ekarri zidaten antologia opari, eta nahi izan nuen euskaraz jarri. Banekien inoiz ez zirela euskaraz egonen –ez zirelako ezagunak, ez zirelako "errentagarriak" merkatu terminotan, igual ez direlako inoiz goi mailako literatura izanen–, eta *elearazi*n eskaini nahi izan nituen. Norbaitek irakurtzen baditu, hara, bete egin dugu helburua.

Eta genero aldetik eta hizkuntza aldetik bilatu dugu aniztasuna. Ez bakarrik hartzaileengatik, geuregatik ere bai. Betiko "handi" eta hegemonikoetatik ateratzeko. Ez gara horretaz esplizituki mintzatu, baina beti bat egin dugu irizpide horretan.

Danele: Bai, eta alde horretatik, zaletasun edo gustu diferenteak ditugu, baina horrelako irizpideetan hain bat etortzea oso lagungarria da. Berak ekarri zituen Kubako poeta horiek, eta niri mundiala iruditu zitzaidan; eta zer ikusia du, baita ere, zuretzat [Garaziri] inportanteak direla, dena delakoagatik.

Ni gogoratu naiz lehenengo jarri nuen autorearekin. Estatu Batuetan bizi nintzenean ezagutu nuen bat, ikusi nuen han jotzen, eta asko gustatu zitzaidan, eta liburu bat ekarri nuen eta… Askotan, nahasten dira baliabidea eta sentimendua, eta horrekin aldarrikapen bat egin daitekeela.

Garazi: Eta, oro har, saiatu gara kalitatezko testuak ekartzen. Salbuespenak badira, ze nik ez daukat irizpide arrazoiturik esateko ona edo txarra den, baina saiatu gara kalitatezko gauzak ekartzen. Eta hala, noiz edo noiz ere halakoren bat sortzen zen: "Nolatan ez dago hau oraindik euskaraz? Bada, guk ekarriko dugu".

Karlos: Bai, hori izan da betidanik euskal itzulpengintzak izan duen oinarria, ez? Itzultzaile askok euren gustuko gauzak ekarri nahi izan dituztela euskarara.

Jartzen nizuen galdera, filosofo batek esaten zuelako –orain ez dut gogoan nork– gaztetan mundua jateko gogoa izaten duzula eta gero konturatzen zarela munduak ez zaituela zu jan behar.

Danele: *elearazi* eteten da, baina nik jarraitzen dut ahaleginean munduak ez nazan jan. Nik uste dut bagenekiela hasieratik mundua zabala eta arrotza dela.

Garazi: Geroz eta gehiago jakin, geroz eta gutxiago dakizula dirudi; sorgin-gurpilez betetako mundu zabal eta arrotza!

Karlos: 31 elkarrizketa egin izana ez da makala. Horietako batzuek kazetaritzan ohikoa izaten den neurria ere gainditu dute.

Danele: Hori da beste abantailetako bat: mugarik gabe jardutea. Itzultzaile horietako batzuei lehen aldiz egiten zitzaien elkarrizketa itzultzaile izatearen ikuspegitik, eta behin elkarrizketa bat egitera jarrita, ibilbide guztia kontuan hartzea iruditzen zitzaigun, eta oso luzeak irteten ziren.

Adibidez, Xabier Olarrari hainbat elkarrizketa egin dizkiote, baina beti galdetzen

dizkiote periodikoetarako galdetzen diren gauzak. Guk beste galdera batzuk egin nahi genizkion. Eta, hala, beste askori. Nire ustez, egin dugun gauzarik onenetariko bat dira elkarrizketak. Ondo prestatu, eta asko zaindu ditugu.

Garazi: Hasieran, Hausnarketa atalarekin hasi ginen, geure gogoetak egiten, eta, jakina, ez zen aski. Epeak eta esperientzia falta kontran, atala pobre samar geratuko zela ikusi genuen. Berehala ekin genion elkarrizketak egiteari, hausnarketa zabaltzeko modua izan zitekeelakoan. Galdera zehatzetara jotzen saiatzen ginen, hori baita itzultzailearentzako erabilgarri; esaterako, hizkera jakin bat nola eman. Elkarrizketatuaren arabera, gehiago edo gutxiago sakontzen genuen teorizazioan. Bion artean adostu ditugu galderak, eta horrek aberastu egin du.

Danele: Bai, uste dut artxiboaren aldetik gauza interesgarrienetako batzuk elkarrizketetan daudela.

Garazi: Bai, hor eta kroniketan. Azken batean, besteen hitzak, zeharka bada ere, gurera ekartzeko modua izan da.

Danele: Bai, baina Autoreak Plazara atalarekin ere oso pozik nago ni. Horrela ezagutu nuen Regina José Galindo –hori zuri eskertu behar dizut, Garazi–, eta jarraitu dut haren ibilbidea. Orduan, horien ekarpena izan da bilaketa-lan hori egitea, ekartzeko. Itzulitako testua, orain irakurriz gero, aldatuko zenuke, noski, baina kronikak-eta, iruditzen zait egin ahala ere bagenekiela horiek gerora izan zezaketen garrantzia. Jendeak ere esaten zigun artxibo ona izango zela. Lehengoan, adibidez, Hedoi Etxartek esan zidan Katakraken irakurri behar zutela Pasazaiteko ipuin katalanen antologia eta jo zuela Aritz Galarragari egin genion elkarrizketara, eta dokumentatzeko eta liburua aurkezteko gauza pilo bat topatu zuela.

Garazi: Eta ikerketarako ere erabili dituzte. Itzultzaile batek esandakoak jasotzeko, kasurako; aipuak dira, azken batean.

Danele: Eta horregatik uste dut ez zuela zentzurik, *elearazi* bezalako toki batean, prentsan ohikoak diren elkarrizketak egitea; mugatuak direnean, diot.

Garazi: Gainera, gu beste ikuspegi batetik ari ginen: interesatzen zitzaigulako. Eta zerrendan utzi ditugu itzultzaile asko; penaz, baina…

Danele: Uste dut hori izan daitekeela gu berriro elkartzeko arrazoi posible bat.

Karlos: Hemen dator bigarren partea: zer irizpide erabili zenuten zuen zerrenda hori osatzeko, elkarrizketak egiteko?

Garazi: Batzuei bidali genien galdetegia, eta ez zuten erantzun. Hau da, guk nahi izanda ere, ez dira zerrendan.

Danele: Hasieran, guk ezagutzen genituenetara jo genuen. Bartzelonan bizi nintzenean, han bizi ziren bi laguni egin nien elkarrizketa, eta horrela. Hautatzen genituen zerbait interesgarria egin zutelako garai horretan, edo… zerrenda oso luzea daukagu. Liburuak irakurriak izatea ere bazen irizpide bat. Eta literatur itzultzaileak ez direnak ere kontuan hartu nahi genituen, edo ikerketan

ibili direnak… Egia esan, 31 ez zaizkit hainbeste iruditzen.

Karlos: Horietatik, baduzue baten bat bereziki gogoan?

Danele: Nik, asko. Pauso handi bat izan zen elkarrizketak sistematikoki aurrez aurre egiten hastea (batzuk Skype bidez). Asko igarri zen hori. Eta asko ikasi dut denetan.

Garazi: Bai. Gainera, batzuk oso mamitsuak izan dira. Iruditzen zaizu prestaturiko galderek askorako emanen dutela, eta, dena delakoagatik, ez da hala gertatzen. Edo ez zara konforme geratu galderekin, baina erantzunek asko eman dute… Halakoetan, elkarrizketatuen meritua izaten da, noski. Oro har, oso ongi hartu dute proposamena, eta guk anitz ikasi dugu.

Karlos: Kronikekin ere oso pozik geratu zinetela esan duzue. Aipatuta dagoen arren, zabalduko duzue pixka bat?

Garazi: Kronikak ez zeuden hasierako asmoen artean, baina asko eskertu dizkigute. Egia da oso ongi datozela, norbaitek saioren batera joan nahi baina ezin duenean. Batzuk oso luzeak ateratzen zitzaizkigun, baina ahalegin handia jartzen genuen horretan, xehe-xehe azaltzeko.

Danele: Elkarrizketekin hartu genuen bide bera hartu genuen: saioetara joatekoa. Eta behin hara joanda, han esandakoak ondo bildu nahi genituen. Testigantza bat ere bada, hitzaldi horretan zer kontatu den gordetzeko. Ez dut gogoan noiz hasi ginen…

Garazi: Ikastaroekin hasi ginen. EIZIEk Eibarren antolatutako ikastarora joan, eta egunero egin genuen kronika. Gero, Garazik, Ugaldek eta hirurok Baionan antolatu genuen UEUko ikastaroaren berri ere eman genuen, ikus-entzunezko eta guzti, eta horrela nahikotxo egin ditugu azkenean. Hori ere artxibo modura, adibidez, ongi baino hobeki dago.

Danele: Literatura Eskolako kasik saio guztiena egin dugu. Batzuetan ezin izan gara egon, baina joan garen guztiena egin dugu. Hitzaldi horien berri oraindik irakur daiteke; neuk ere jo izan dut horra zerbaiten bila, beste gauza batekin ari nintzela.

Garazi: Bai, neuri oso ongi datozkit, oso memoria txarra daukadalako. Konpromisoa hartu gabe, bukatuko zuten koaderno bateko ohar izaten, ez kronika egituratu bat. Lan handia hartzen genuen, baina gozamena da horra jo ahal izatea jakiteko zer esan zuen honek, zer erreferentzia eman zuen besteak… Nirea bezalako memoria eskasekoentzat, primeran.

Karlos: Badakit gauza gehiago zenituztela esateko blogean, baina geratu al zaizue arantzaren bat, edo zerbaiti atea itxi izanaren sentsaziaoa edo…?

Garazi: Hainbeste gauza dago jartzeko… Pentsatzen jarrita, etortzen zaizkit itzultzaile batzuk elkarrizketa egiteko, edo autore batzuk euskaratzeko… Baina anitz dira, gehiegi, eta neuri, behintzat, ez zait arantzarik geratu.

Danele: Ez, aurreikusita genuen autoreren bat edo lanen bat apuntatzea, ideiarik

gabe geratzen ginenerako, eta niri hor geratu zaizkit pilatuta ezagutu ditudan batzuk, bila hasi nintzelako, baina ez daukat bereziki ezer.

Garazi: Gainera, hilabete batzuk lehenago erabaki genuen arantza oro kimatzea; hala nola, Margaret Atwood. Nahi nuen haren zerbait jarri, ez zegoelako deus euskaraz, baina ez zidan denborarik eman –adibidez– ipuin bat ekartzeko, eta prentsako testu labur bat itzuli nuen.

Danele: Nik ere buruan nuen Eva Foresten liburu txiki bat, kartzelan idatzitako gutunena, eta niretzat inportantea zen. Eta atera genuen garaian bazen epaiketa bat, gainera. Erosia nuen liburua zatiren bat ekartzeko asmotan… Arantza nagusiak izan zitezkeenak, atera egin dira.

Karlos: Maila pertsonalago batean jarrita, zergatik ikasi zenuten itzulpengintza?

Garazi: Nik, aurretik, Irakasletza egin nuen, ingelesez, eta, horretan ari nintzela, erabaki nuen bukatzean beste zerbait ikasiko nuela. Nahiko garbi nuen Itzulpengintza izanen zela: hizkuntzak eta irakurtzea gustatzen zitzaizkidalako, agian. Bukatu nuen Irakasletza, eta karreraren bigarren zikloako sarrera-probak egiteko, zenbait hilabete eman nuen atzerrian ikasten. Eta hala hasi nintzen. Alde ederra dago karreran zer motibaziorekin hasten zaren.

Danele: Nire karrera bakarra izan da. Kuriositatea pizten zidalako hautatu nuen, gutxi gorabehera. Ni betidanik izan naiz irakurzalea, eta literaturatik zetorkidan interesa. Ingelesa ikasi nuen eskolan, eta gustatzen zitzaidan beste hizkuntzen zer hori.

Ardi galduenera etorrita, igartzen nuen beste ikaskide batzuei hizkuntzen arteko harremanak-edo pizten ziela kuriositatea; niri, berriz, hizkuntza *zertarako* erabiltzen den interesatzen zait: literaturarako eta hizketarako.

Orain, beste karrera bat hasiko banu, ez litzateke itzulpengintza izango; hausnarketa gehiago duen karreraren bat, igual. Kanpora joateko aukera ematen zuen, eta banuen gogoa. Bi urte egin nituen Gasteizko fakultatetik kanpo, eta horregatik ere bai. Oso praktikoki erabaki nuen zer karrera ikasi. Ez nuen buruan administrazioko itzulpenean jardutea. Gero, egin egiten ditut halako itzulpenak, eta gustura, baina…

Karlos: Kontzienteki egin duzuen lehen itzulpena? Ikasketetan hasi aurretik? Ikasketetan…?

Garazi: Inkontzienteki, Tafallakoa izanda, nahitaez egin behar izaten nuen itzulpena, buruan bada ere. Eta kontzienteki ere jarria nuen testuren bat euskaraz. Orain ez nituzke hartu nahi, baina… Oso hitzez hitzekora jotzen nuen, seguruenik.

Danele: Prestatu nituen karrera aurreko azterketa horietako itzulpenak. Edo, oso informalki, ingelesez zegoen zerbait euskaratzea, ez zekien norbaitentzat…

Karlos: Eta lehen idazkia, asmo estetiko edo kritikoz egindakoa? Eskola garaiko gauzak alde batera utzita, esan nahi dut.

Danele: Eskolako lehiaketaren bat kenduta… Hori, beranduago. Blogarekin, esango nuke.

Garazi: Egunerokoak balio du?

Karlos: Askotan gertatzen da itzultzaile eta idazle ere izatea. Eta zuek ere, neurri batean, hala jardun duzue. Beti ez delako izan literatur sorkuntza edo saiakera… Momentu jakin batean plazara agertu zarete; baina, hori baino lehenago?

Danele: Bloga baino lehen, oso aparte bizi nintzen mundu horretatik. Jarraitzen nuen periodikoetatik eta horrela… baina gerora etorri dira; herri-aldizkarian idatzi izan dut zutaberen bat, baina beranduago.

Karlos: Beste kontu bat ere aipatzen duzue: literaturaren eta itzulpenaren arteko harreman amodio-gorrotozkoa. Azalduko duzue hori?

Danele: Nik uste dut gehiago dela literaturlari eta itzultzaileen arteko amodio-gorroto bat; egotekotan, diot.

Garazi: Bai, ez zen horrela esatekoa baina… Bada hor nahi eta ezin bat, ezta? Norberarena, azkenean. Itxuraz, ongi moldatu beharko lukete biek, baina ez; beti mokoka, tiraka… alde horretatik esana dago.

Danele: Ni ausartuko naiz esatera itzultzaileek gehiago errespetatzen dutela idazleen lana, idazleek itzultzaileena baino, oro har. Idazle batzuek badute kontzientzia maila bat itzulpengintzari buruz, eta benetan zer esan nahi duen jardun horrek, baina beste batzuek… Ez dakit, e? Nik, alde horretatik, itzultzaileen aldera jotzen dut. Gainera, askotan egoten dira idazlearekin, jakina, fisikoki ez bada ere, eta errespetu eta amodio hori askoz gehiago ematen da, nik uste. Salbuespenak beti egoten dira, baina, oro har, esango nuke literatur munduan aurreiritzi gehiago dagoela deuseztatzeko itzulpen munduan baino.

Garazi: Ez dakit… Bada dioenik literatura guztia itzulpena dela, ez? Alderantziz ere izan daiteke, nork esaten duen.

Danele: Edo idazleak iristea hori onartzera. Ni prest egongo nintzateke hori onartzeko.

Garazi: Ni, egia esan, lehen gehiago nintzen itzultzaile literarioen lana aldarrikatzearen aldekoa. Baina, azken boladan, pixka bat nekatuta nago norgehiagoka horrekin; ez du merezi.

Danele: A, bai? Ni ez nago nekatuta. Nik ez dut lehia gisa planteatzen. Errekonozimendu gisa, gehiago. Kasu batzuetan, kasik mespretxua ere izan da, eta, orduan…

Garazi: Ezjakintasunagatik, ezta?

Danele: Bai, bai, baina, gogoratzen dut, esate baterako, Miramar Jauregian egindako ikastaro hura, EIZIEk antolatu zuen bigarren hura, eta Harkaitz Canok zer erantzun zion Mariasun Landaren galdera bati. Nik eratorri nuena izan zen itzultzaile batek beldurra eman diezaiokeela idazleari, ze, testua oso ondo ezagutuko du, eta buelta asko emango dizkio, eta, agian, idazlea konturatuko da ustez han ziren perla batzuk ez zirela han, eta ezin diola hori itzultzaileari egotzi.

Baina hori, beste modu batean hartuta, izan daiteke ofizioa hobetzeko modu bat.

Garazi: Bai, hala da; horregatik jotzen dute idazle askok beren liburuak itzultzera, ezta? Ez dutelako galdu nahi obraren ustezko kontrola, eta idazketa prozesuaren jarraipen moduko bat izan daitekeelako bai obra "hobetzeko" bai hartzaile berriari egokitzeko.

Danele: Baina hor ez da sartzen itzultzailea ona den edo ez, baizik eta obraren kontrola…

Garazi: Hara, beste elkarrizketa baterako emanen luke gai horrek.

Karlos: Batzuek esaten dute itzulpena beste idazketa mota bat dela, itzultzeak areago lotzen zaituela; baina, neurri batean edukia emanda dago. Zuen esperientziatik, nola sentitzen zarete erosoago?

Danele: Ni, garaiaren arabera. Batzuetan, disfrutatzen dut ariketa horrekin; hizkuntzaren mekanismoekin, zuzen eta egoki idazte horretan, baina idazten dudanean, ideiak adierazteko, neure buruarekin izaten dut borroka. Besteak gehiago du artisautzatik. Batean, jatorrizkoarekin ari naiz borrokan; bestean, neure buruarekin.

Garazi: Bai, badirudi gauza bera dela, sorkuntza maila bat konpartitzen dutelako bi jardunek; baina, batean gauza batzuekin lasaiago ibiliko zara, eta beste gauza batzuetan indarra jarri ahalko duzu, edo horrekin gozatu edo burua hautsi, edo alderantziz. Zaila da aukeratzen.

Karlos: "Arreta handiagoz saiatu gara hizki larriko Historian isilarazitako ahotsak ekartzen". Zergatik? Zein ahots? Aipatu dituzue horietako batzuk…

Garazi: Ba, hain zuzen, Historiak horietako batzuk isilarazi dituelako. Assata Shakurren testu bat ekarri genuen, eta esaten zuen: "Komunikabideok, izan zaitezte ahots gabeon ahotsa". Uste dut horretan saiatu garela, kontziente izan zein ez: komertzialki zailagoak izanen ziren horiek ekartzen, edo hainbesterainoko lekua ez dutenak, edo haien aldarrikapenekin bat egiten dugulako edo…

Danele: Bai, eta mundua zelan ikusten duzun. Gizartea antolatuta dagoen moduan antolatuta dago, eta horrek ondorio batzuk dakartza, eta zeure burua horren aurrean kokatzea ez da bakarrik manifestazio batera joatea, baizik eta leiho bat daukazun tokian hori ateratzea. Sinesteagatik ere izan da. Horrela pentsatzen dugulako.

Karlos: Hori aipatu dut ikusten delako bazenutela helburu bat; baina, orain azaltzen duzuenagatik, hainbat zio zirela-eta Historian isilarazitakoak ekarri dituzue, ez gauza jakin batengatik.

Danele: Bai, normalean boterearen kontra egon den jendea, hainbat modutan: edo pobreak izan direla, edo beltzak, edo dena dela.

Garazi: Edo kontra egon gabe ere, botereari komeni ez zaizkienak.

Danele: Bai, botere esaten dudanean, ideologia dominantea esan nahi dut.

Karlos: Eta hor, loturarik ikusten duzue lehengo ardi haiekin?

Danele: Kontzientea, ez.

Karlos: Ardi beltz, txuri…, zelan ikusten duzue zeuen burua?

Danele: Ba, egunaren arabera. Batzuetan, gris ere bai… Besteetan, ortzadarraren koloreren batekoa…

Karlos: Batzuetan, Historian isilarazitako horiek ardi beltz gertatu izan dira…

Danele: Bai, eta propaganda-lan bat ere izan da horiek ardi beltz bilakatzeko. Assata Shakurren kasuan, horixe gertatu da. Assata Kuban bizi da, eta badirudi Estatu Batuen eta Kubaren arteko harremanak martxan jarriko direla berriro, nola edo hala. Beno, nik irakurri nuen haren autobiografia, eta muntaia polizial bat dago hor, ikaragarria, eta zikintzen jarraitu dute. Ardi beltzak dira, baina letra larrizko Historia dagoelako dagoenen eskuetan. Sarriren *Moroak*… liburuko hausnarketak ere hortik doaz, eta… Baina ez, kontzienteki ez zegoen ardi galduen eta horien arteko loturarik.

Karlos: Itzulpengintzaz teorizatu duzue blogean: "Bilakatu zareten jakintsuak, hainbeste esperientziarekin ulertu dukezue Ithakak zer erran nahi duen?". Hiru urteko bide honek jakintsuago egin zaituzte?

Garazi: Nik esanen nuke baietz, alde horretatik. Ikusten dugulako oraindik zenbat dugun ikasteko, geure gabeziez eta ahuleziez kontzienteago garelako. Eta horretaz jabetzen gara gehiago dakigulako, edonork bezala; hiru urte hauetan izan ditugulako hausnarketa batzuk, eta galdera ikur asko jarri ditugulako, eta horien inguruko gogoeta egin dugulako. Ibilian.

Danele: Nik nabarmen ikusten dut. Igual hizkuntzaren ezagutzan ikusten dut gehien. Bloga izan ez banu, beste martxa batean irakurriko nuke, baina nire itzultzeko moduan ere eragin handia izan du. Errazenera joanda: autore gehiago ezagutzen ditugu, elkarrizketatu ditugun itzultzaileak pertsonalki ezagutzeak ere asko ekartzen dizu, eta kronikak egitearen prozesua bera ere… Garazik esan duen moduan, sintesi-lan bat egiten baduzu, gero askoz hobeto gogoratzen zara gauza batzuez.

Garazi: Eta, aldi berean, gogoeta pizten du. Hitzaldi batean zaude, eta igual ez duzu galderarik, baina beratzen uzten duzu, hasten zara idazten, eta galderak sortzen zaizkizu, "bainak" agertzen dira. Nolabait, barneratzen duzu teorizazio hori, eta, gero, zeure gauzak egiteko balio dizu, edo beste bati balioko dio barneko kezkak azaleratzeko, intuizioak arrazoitzeko, kontra egiteko…

Karlos: Orduan, bideak ez dizue gezurrik esan, ez? Ithakak ez zaituzte engainatu.

Danele: Ithakara ez gara iritsi.

Garazi: Ez, ezezagunagoa zaigu. Hurbildu ahala, geroz eta arrotzago.

Karlos: "Itzulpengintza diziplina artean baino ez dugu ulertzen, harremanean…" Azalduko duzue apur batean?

Danele: Lehen esan duguna, ez? Bloga planteatu dugun moduan, beste gauza asko ekarrita, itzulpena oso zabala baita…

Garazi: Bitarteko bat da, ez helburua. Gauza askotarako eman digu. Itzultzen ari bazara, jardunean, normalean ez zara ari itzulpengintzaz beraz. Beste hamaika arlorekin harremanetan zara; dekretu bat itzultzean, adibidez, administrazioarekin, legeekin edo tokiko araudiarekin. Oso lurtarra da, hein batean. Ez dago itzulpen bakarturik; testuak testuingurua du, eta, zeharka bada ere, hori ere ari zara itzultzen. Hori testuan dagoen edo ez, ez naiz sartuko. Hainbat kanpofaktore dago, hainbat sistemaz osatutako sistema bat da itzulpengintza, eta elkar eraginean ari dira. Esparru batean zerbait aldatuz gero, ingurukoak zipriztinduko ditu. Teorizazio mailan eta praktikan.

Karlos: Hiru urtean, analisi bat edo erradiografia moduko bat egin duzue, itzulpengintzarena, zeuen ikuspegitik. Zer huts eta zer alde on ikusi dizkiozue?

Danele: Jendea ezagututa, nik uste dut komunitatea dela itzulpengintzak daukan gauza onenetariko bat. Batez ere, beste alor batzuetako komunitateekin konparatuta. Itzulpengintzarena oso saiatua da, oso zorrotza, oso kritikoa –baina ez suntsitzailea–, eta oso ondo hartzen duena ingurukoa. Deskubrimendu bat izan da niretzat. Baditu beste hainbat gauza ere. Hor dago belaunaldi artekoa. Gurasokeria gehiago sumatu dut beste arlo batzuetan. Itzultzaile helduagoek egin dizkiguten ekarpenak oso baliagarriak gertatu zaizkit. Eta lana bera ere bai; uste dut oso kalitate oneko lana egiten dutela.

Garazi: Duela gutxi zioen Xabier Olarrak periodikoan berak oso beltz ikusten zuela etorkizuna, eta nik uste dut ari zela batez ere editore on eta zorrotz den aldetik, merkatuaren ikuspegitik. Zaila dago, bai, baina idatzi berean Ana Moralesek zioen 40 urtetik gorakoek badutela ohitura bat eta tradizio bat erdaraz irakurtzekoa, baina gazteen artean indar handiagoa egin behar dela, sustatzeko eta hasieratik klasikoak-eta euskaraz irakurtzeko ohitura hartzeko. Itzulpengintza literariora mugatu gara orain arte. Autonomoak nola dauden, edo lanbidea bera nola dagoen, ez naiz hor sartuko, datuak falta baititut. Gabeziak, bai; konturatu naiz beti ateratzen ari garela babes instituzional eta sozial falta, badirudi kaka ateratzen ari garela beti. On egiten du aurreko belaunaldiak hizketan entzuteak, oro har, bide onean garela ondorioztatzen duzulako.

Danele: Uste dut hiru urteotan igarri dudala hedabideetan presentzia handiagoa duela itzulpengintzak, ari dela lortzen errespetu bat. Hiru urte ez dira asko, eta denbora luzeagoa eman duzuenontzat askoz agerikoagoa izango da. Ez da erraza itzulpengintzaren egoeraz hitz egitea niretzat, ze, ez dut aztertu sistematikoki, eta badauzkat inpresio batzuk, baina, beno… komunitate indartsu bat edukitzea –motibatua eta ez dena sentitzen dinosauro batekin kargatzen ari dela– oso inportantea da proiektu bat aurrera ateratzeko.

Garazi: Berriz ere literaturara mugatuz, ikusten da jendeak maite duela egiten duena, eta horrek berak nahitaez ekarri behar du kalitatea; gogoz egiten den zerbait delako, batzuetan guztiz borondatez, eta egin

nahi horrek ongi egin nahia dakarrelako, gehienetan. Eta komunitate hori gogotsu ikusteak motibazio bat dakarkigu besteoi.

Karlos: Zer itzuliko zenukete inolako mugakizunik ez balego bezala? Era guztietako baldintzak alde batera utzita.

Danele: Nik ekarriko nuke Elfriede Jelineken edozein liburu. Gustatzen zaidalako, eta ikaragarria iruditzen zaidalako. Egurra ematen du, ez du inor zutik uzten. Pena eman zidan Jokin Zaitegiren lehiaketan ez esleitu izanak. Liburu guztiak gaztelaniaz irakurri ditut. Gauza asko dauzkat, baina hori da bat.

Garazi: Lehen aipatu dut Margaret Atwood, baina, berdin-berdin, Amelie Nothomb, Samanta Schweblin, Marguerite Duras, Lina Meruane… Ez euskarak behar dituelako, baizik eta neuri gustatuko litzaidakeelako ariketa hori egitea. Beharbada liburuak aipatu behar nituzke, autore horien edozer ere ez bainuke hartuko.

Karlos: Esaten da idazten dugunean beti dugula hartzaileren bat gogoan, eta itzultzerakoan ere bai, ez? Zeure buruarentzat egiten duzu ariketa, ala baduzu baten bat gogoan?

Danele: Idazlearen arabera ere bada. Jelineken kasuan, adibidez, gustatuko litzaidake berak deskribitzen dituen familia eredu tradizional horiek irakurtzea haren lanak; zurrun antolatutako eta konbentzionalismoen gurtza itsu bat egiten duten horiek irakurri beharko lituzkete Jelineken liburuak. Uste dut haren liburuetan dagoen amorru hori sortuko litzaidakeela niri ere jende horiengan pentsatzerakoan. Baina, klaro, liburu hori irakurriko dute, ni bezala, halakoen kontra daudenek.

Eta beste hartzaile bat da irakurle zorrotz bat, zuzentzaile bat.

Garazi: Edo idazlea maite duen bat. Horrek ere zorroztasuna eskatzen du. Jarraitzaile batek irakurriko ote duen, edo norbait zaleago bilakatuko ote den hori irakurrita… Inori zor izatekotan, geure buruari eta irakurleari zor diegu zintzotasuna, horrek ekarriko baitu besteenganakoa, autorearenganakoa, kasu.

Karlos: Esan gabe geratu da zerbait?

Garazi: Oso diziplina *apasionantean* ari garela. Eta pasio orotan bezala, badira une amorragarri eta etsigarriak, non guztia bidaliko zenukeen pikutara. Eta, agian, halako batean bidaliko duzu, aldi baterako, zeren, gero, berriz helduko diozu, ez badizu on baino kalte egiten, noski, sufritzeko ez baikara bizi. Ez dakit euskaraz zer hitz den zuzena, baina niretzat horrek adierazten du hobekien: *apasionantea*. Eta pasioa hain da droga beharrezko eta erakargarria.

Danele: Bai, uste dut blogak eutsi diola eutsi dionari, pasioa zegoelako.

Resumen

El 11 de marzo de 2015 dijo adiós el portal *elearazi*. Sus responsables, Garazi Arrula Ruiz y Danele Sarriugarte Mochales publicaron 264 artículos en total. Pusieron a disposición del público 80 autoras y autores; la mitad, textos de ficción, la otra mitad, no-ficción. Fue un intento de abarcar todos los géneros, e incluyeron también materiales audiovisuales. Dieron la palabra a personas investigadoras, traductoras y pensadoras, mediante 31 entrevistas de gran enjundia. En esta entrevista, sin embargo, ellas son las protagonistas.

Résumé

Le 11 mars 2015, le site internet *elearazi* s'est éteint. Ses responsables, Garazi Arrula Ruiz et Danele Sarriugarte Mochales y ont publié, ces dernières années, un total de 264 articles. Elles ont mis à la disposition des lecteurs les travaux de 80 auteur(e)s, dont la moitié ont été des textes de fiction. Elles ont essayé d'aborder tous les genres littéraires et ont même inclus des œuvres audiovisuelles. Elles ont donné la parole à des femmes et à des hommes spécialisés dans la recherche, la traduction et le domaine de la pensée, à travers 31 entretiens de grand contenu. Mais dans cette interview, les protagonistes sont Garazi et Danele.

Abstract.

On March 11, 2015, we said goodbye to the *elearazi* website. Directors Garazi Arrula Ruiz and Danele Sarriugarte Mochales brought 80 authors to the public eye in a total of 264 articles, half of which were fiction and half non-fiction. They attempted to cover all genres, and also included audiovisual materials. They gave voice to researchers, translators and thinkers through 31 notable interviews. In this interview, however, it is they who are the protagonists.